

# X

## GOPAREN-ABESTIA

<sup>20</sup>Bedeinkatua Zeu, Jauna,  
umezurtza bertan-beera itzi ez zendualako,

<sup>21</sup>beartsua be baztarrean itzi ez zendulako;  
izan be, zure aal-izatea agortu-eziña da

<sup>22</sup>eta zure aintza mugabagea.  
Guadalari miragarriak dira zure morroiak  
eta apalen erria zeure oiñazpia lez da.  
Arekandik datorren gorapena atsegingarri yatzu.

<sup>23</sup>Areik zuzentasun-ardurea dabe,  
beartsu guztiak gora jasoten aalegintzen dira,  
Zuk maite dozuzan beartsuak,  
zapalkundetik askatzeko.  
Orregaitik, ni guztien arerio biurtu naz,

<sup>24</sup>nire lagun-urkoaren erantzungarri ta eztabai-  
dagarri,  
Itunpenean eskuartzen daben guztientzat  
arretagarri ta sumingarri;  
nire senitarte guztientzat  
eta nire ogia jaten daben guztientzat  
mormoxetagarri ta esamesgarri.

<sup>25</sup>Neure aurka jaso dabe orpo-azurra.  
Ezpan gaiztoz egiten dabe berba nitzaz  
Alkartasunekoak ziran guzti areik.  
Leen jarraitzen eusten gizonak eurak biurritu egin  
dira.

<sup>26</sup>Nire inguruan mormoxetan diardue,  
Zuk nigan gorde dozun misterioagaitik.  
Baltzitu egin dauste izen ona ondapen-semeen artean,  
Zu nigan aundi agertzeko erea emonik.

<sup>27</sup>Arein erruagaitik, ezkutatu egin zeutsezan  
adimenaren iturria ta egiaren ezkutua.  
Areik ondapena baiño ez erabillen euren biotzean.  
Belial'en asmoak ausnartzen ebezan.

<sup>28</sup>Miin guzurti bat askatu eben,  
arantzen artean laratzen diran  
suge-edena bustiteko.  
Autsetan sua jaurtiten daben narraztiak lez dira;  
suge txikiak lez:

<sup>29</sup>onein aurka ez dabe sorginkeriak ezetako balio.  
Ori [nigan] min osatu-ezin biurtu zan,  
zauri galgarria zure morroiaren erraietan,  
bere espirituan ia koloka eragiteraiño

<sup>30</sup>eta indar guztiaz kentzeraiño.  
Zutik be ezin egon naitekean.  
Zauritu egin nenduen kale-zirkilluetan;  
nire aurka etozanean ezin idoro neikan an babesik;  
ez egoan an iges-tokirik.

<sup>31</sup>Nire atsekabeak zirala-ta,  
arpa-otsean abestiak egin ebezan.  
Ari-ereskiñez esan ebezan euren esamesak;  
zarata ta poz-artean  
atsegiña artzen eben nire atsekabe ta esturakaitik.